


# Ybarratarren euskal musika bilduma



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**B**ilbo, 1857. Banco de Bilbao sortu zen; akziodun nabarmenen artean Ybarra familia zegoen. 1902an Bizkaiko Labe Garaiak abian jarri zirenean ybarratarrek ere tartean ziren. Bilbo edota Getxoko alkate izan ziren, Bizkaian nahiz Madrilen diputatu. Sendiaren Sevillako adarra itsas merkataritzan eta elikadura industrian nabarmendu zen, baita esklaboen salerosketan ere... Eta, itxuraz, musikazaleak ere baziren.

1996ko martxoan Eresbil euskal musikaren artxibora zazpi egurrezko kutxa iritsi ziren, barruan 634 zilindro zituztenak. Argizarizko zilindroak musika entzuteko disko aitzindariak ziren, Edisonek 1877an asmatutako fonografoan erabiltzen zirenak. Bizkaiko Artxibo Historikotik Eresbilera eramandako zilindro sorta Ybarra familiak 1898-1905 urte inguruan osatutako musika bilduma zen.

Zilindro gehienak Bartzelona, Madril eta Valentziako diskoetxetakoak –edo hobe esanda, zilindro-etxeetakoak– dira, baina 150 Bilboko bi enpresa fonografikotan grabatu zituzten: 144 Viuda de Ablanedo e Hijo etxean, eta beste seiak Enrique Garcíaren piano biltegian.

Ablanedoren alargunaren zigilua duten zilindroetan denetik dago: Verdi edo Wagnerren opera zatiak, zarzuela, espainiar kantuak, habanerak... Baina zenbait euskal kantu eta zortziko ere badaude, gehienak Maguregi jaunak kantatuak –abizena bai,



Ybarra familiaren bildumako bi zilindro, biak Bilbon grabatuak eta biak zazpi pezetaren truke erosiak: *agur nerebiotzeco* (sic) eta *euskalduna*.

baina izenik ez da ageri zigiluetan–: *Agur nerebiotzeco*, *Iru dámacho*, *Izazu nitzas cupira*... Ybarratarrek lortutako Enrique Garcíaren sei grabaketak, aldiz, euskal kantuak dira: *Betti-maite*, *Euskalduna*, *Goy Zeco y Sarra*... guztiak Arriaga jaunaren ahotsean.

Ybarra familiako zilindro gehienak oso egoera kaskarrean iritsi ziren artxibora. Jatorrizko kaxetatik atera zituzten eta kanpotik biltzen zituen kotoia kendu zieten. Hezetasanak eragindako kalteak oso nabarmenak ziren, ziurrenik 1983ko Bilboko uholdeen ondorioz. Zilindro batzuk pus-

katuta zeuden, beste batzuk erreta ziruditen eta gehienak ondoek hartuta zeuden. Salbatu zitezkeenak ondo garbitu zituzten orduan. Geroago digitalizatuko zituzten, eta horietako batzuk entzungai daude gaur egun Eresbil webgunean.

Eta hala, Ybarra familiaren zaletasunari esker –eta aberastasunari esker, fonografoa eta zilindroak erostea ez baitzegoen edozeinen esku– eta azken hamarkadatan egindako kontserbazio ahaleginak medio, soinu kalitate oso kaskarreko baina balio handiko euskal kanta mordo bat iritsi zaigu. ●



## Herkulanoko dieta diskriminatzailea

Vesuvioren errautsek hartutako Herkulanoko 16 biktimaren hezurak aztertu berri dituzte Yorkeko unibertsitateko adituek, eta, isotopoei esker, duela 2.000 urte zer jaten zuten jakin ahal izan dute: dieta anitza zeukaten, oli-ba olioak garrantzia handia zuen, eta egungo Mediterraneoko biztanleek baino hiru aldiz itsaski gehiago kontsumitzen zuten.

Baina ikerketaren ondorioz nabarmena, gizonen eta emakumeen dieten arteko aldea da. Gizonezkoek zereal, arrain eta itsaski gehiago jaten zuten, eta emakumeek fruta eta barazki gehiago. Gizonek etxetik kanpo denbora gehiago pasatzen zuten eta, oro har, emakumeek baino estatus sozial altuagoa zuten, eta horrek azal dezake dieten bereizkeria. ●